

Prentsa oharra

Nota de prensa



Udala morez argiztatuko da Dravet Sindromearen Nazioarteko Egunean

Ekainaren 23an, asteartean, ospatzen da

Aurten ere Donostiako Udalak bat egingo du Dravet Sindromearen Nazioarteko Egunarekin eta fatxada morez argiztatuko da. Ekainaren 23an ospatzen da eguna eta gaixotasun arraro horri ahalik eta ikusgarritasun handiena ematea du helburu, gizartea ohartarazteko eta kontzientziazteko sindrome hori duten familiek eguneroko bizitzan dituzten erronka eta zailtasun guztiez, bai eta ikerketan inbertitzeko beharraz ere, gaixotasun horren ondorioak arintzeko eta pairatzen dutenen bizi-kalitatea hobetzeko.

Bestalde, Dbusek ere ekimena babestuko du eta horregatik, bihar Donostiako hiri autobus guztiek Dravet Sindromearen kartela eramango dute egun guztian zehar.

Donostia, 2020ko ekainaren 22a